


Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización



Arrasateko Udala

Ayuntamiento de Arrasate / Mondragón

2009



AURKIBIDEA/ÍNDICE

| | | |
|------|--|----|
| I. | SARRERA | 5 |
| II. | IRITZIA..... | 6 |
| | II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA | 6 |
| | II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA | 8 |
| III. | BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK..... | 9 |
| | III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA..... | 9 |
| | III.2 SARRERA FISKALAK..... | 10 |
| | III.3 LANGILEAK | 10 |
| | III.4 KONTRATAZIOA..... | 11 |
| | III.5 DIRU-LAGUNTZAK | 13 |
| IV. | FINANTZEN ANALISIA | 14 |
| V. | URTEKO KONTUAK | 19 |
| | ALEGAZIOAK | 27 |
| I. | INTRODUCCIÓN..... | 39 |
| II. | OPINIÓN..... | 40 |
| | II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD | 40 |
| | II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES..... | 42 |
| III. | CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN | 43 |
| | III.1 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD | 43 |
| | III.2 INGRESOS FISCALES | 44 |
| | III.3 PERSONAL..... | 44 |
| | III.4 CONTRATACIÓN | 45 |
| | III.5 SUBVENCIONES | 46 |
| IV. | ANÁLISIS FINANCIERO | 48 |
| V. | CUENTAS ANUALES..... | 53 |

| | |
|---|-----------|
| ANEXOS | 61 |
| A.1 Naturaleza del ente fiscalizado..... | 61 |
| A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias | 62 |
| A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos | 65 |
| A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones | 67 |
| A.5 Enajenación inversiones reales | 68 |
| A.6 Gastos de personal | 69 |
| A.7 Compra de bienes corriente y servicios | 72 |
| A.8 Transferencias y subvenciones concedidas | 74 |
| A.9 Inmovilizado y patrimonio en situaciones especiales..... | 76 |
| A.10 Pasivos financieros | 78 |
| A.11 Deudores presupuestarios..... | 79 |
| A.12 Operaciones extrapresupuestarias..... | 79 |
| A.13 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial..... | 80 |
| A.14 Clasificación funcional del gasto | 81 |
| A.15 Contratación | 82 |
| ALEGACIONES | 85 |

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 1a
Vitoria-Gasteiz, 1 de diciembre de 2011



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Arrasateko Udalaren eta bere Toki Erakunde Autonomoaren 2009ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkotasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren egoeraren balantza, galera-irabazien kontua eta memoria; baita udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren aurrekontuen likidazioa ere.

Udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren kontuei dagokienez, gure lana kanpoko enpresa batek gauzatutako auditoretzako txostenak aztertzea izan da eta horretarako, auditoreen lan paperetan euskarriturik daudela egiaztatu dugu eta beharrezko iritzitako proba osagarriak edo auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.

- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.

Arrasateko udalerriak 22.064 biztanle ditu 2009ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera eta bere egituraren, Udalaz gain, Iturbide Egoitza eta Aukea Kirol Erakundea Erakunde Autonomoak besarkatzen ditu.

2008ko azaroaren 6an Udalaren Osokoak Arrasate Garatu, SA udal sozietaea desegiteko erabakia hartu eta kapital soziala Udalaren ondarera itzultzeko agindu zuen. Sozietaea 1999an sortu zen udal lurzorua kudeatzeko. 2009ko urtarrilaren 15ean publiko egin zen aipatutako erabakia eta 2009ko otsailaren 20an Merkataritzako Erregistroan jaso zen.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILEAK

1. Abenduaren 4ko 40/2007 Legeak Gizarte Segurantza gaietan neurriak arautzen ditu; horren arabera, txosten hau idatzi dugun datan Udalaren 4 langile eta Aukera Kirol Erakundeko langile 1 erretiro partzialeko egoeran daude; hiru kasutan haien lanpostuak funtzionario bihurtu izanaren ondorioz eterri dira egoera horretara. Udalak eta Erakunde Autonomoak ordaindutako lizentzia apartekoa aitortu zieten harik eta kontratua amaitu arte, euren lanaldia egiaz betetzetik salbuetsiz. Lizentzia honek, ordea, ez du legezko babesik ez eta tokirik ere administrazio publikoen zerbitzura diharduen langileriari ezargarria zaion araubide juridikoan.

KONTRATAZIOA

2. Udalak 2009ko ekitaldian 135 mila euroko gastua egin du, familiekin esku-hartzeko programaren barruan aditu independenteek emandako zerbitzu kontzeptuan; ordea, administrazioko kontratazioan buru egiten duten esleipen prozedura eta moldeak saihestu dituzte (ikus A.8).
3. Udalak Iturbide egoitza zaharberritzeko obra kontratua 2.756 mila euroko zenbatekoarekin esleitu zuen; kontratu horren gainean 11 aldaketa egin dira eta nahiz beharrizan berri eta ustekabeko ondorio izan eta indarreko arautegiari jarraiki egoki bideratu diren, kontratuaren hasierako prezioa % 33 garestitu dute. Aldaketa horiek eragin duten kopuruaren handiak urratu egiten ditu kontratazioko arautegiaren lehia printzipioak, desitxuratu egiten baitu bai kontratuaren xedea, bai kontratuaren bolumen ekonomikoa ere (ikus A.15).
4. Udalak 2.079 mila euroko zenbatekoan esleitu zuen Ferixalekua-Altamiran 2 igogailu eta Makatzenan igogailu 1 jartzeko kontratu mistoa (proiektua egitea eta obren zuzendaritza, 76 mila euro; obra zibila, 1.104 mila euro; hornidura eta instalazioa, 357 mila euro; eta 10 urtetarako mantentze-zerbitzua, 542 mila euro); ordea, proiektuak eta eraikuntza-lanak egiteko baterako kontratazioaren justifikazioa ez zaie APKLTBren (Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Testu Bateratua) ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzazko Errege Dekretuaren 125. artikuluan aurreikusitako apartekotasun egoerei egokitzen (ikus A.15).

Gainera, 2008ko abenduaren 11ko datarekin, Udalbatzak Ferixalekua-Altamiran 2 igogailu jartzeko proiektuaren aldaketa onetsi zuen eta obra zibila egiteko kostua 815 mila euroan garestitu zen (hasieran esleitutakoarekiko % 96ko igoera). Esleipen hartzailak aurkeztutako proiektu hori lehiaketa fasean aurkeztutako aurre-proiektuarekiko guztiz bestelakoa da, teknikoki zein ekonomikoki; aurre-proiektu hori izan zen, baina, esleipenerako oinarri; administrazio-klausula berezien pleguaren 8. Klausularen arabera, kontratua bertan behera uzteko kausa da eta APKLTBren 111. artikulua urratzen du.



5. Udalbatzak 2003an eta aleko prezioetan Iturbide Egoitza Erakunde Autonomoaren sukaldeko zerbitzu partziala esleitu zuen; esleipena guztira 5 urtetarakoa zen, luzapenak barne; ez da, baina, fiskalizazio-gai izan den ekitaldian beste prozedura baterako deialdirik bideratu eta honenbestez, zerbitzuaren emakida, 2009ko ekitaldian 159 mila euroko gastua egin duena, urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak (SPKL) arautzen dituen printzipioak urratuta gauzatu da (ikus A.15).

BESTELAKOAK

6. Udal irratiaaren zerbitzu publikoa zeharka kudeatzen da sozietate kooperatibo baten bitartez; kooperatiba hori 2009ko ekitaldian 110 mila euroko diru-laguntza izendun bidez finantzatu da; ordea, jokamolde honek urratu egiten du apirilaren 8ko 11/1991 Legearen 3. Artikulua, udal irratien antolamendu eta kontrolari buruzkoa. Baldin eta Udalak zerbitzu publiko honi eutsi nahiko balio, toki erakunde berak kudeatu beharko luke, Toki Araubidearen Oinarri-arauak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (aurrerantzean TAOL) 85. artikuluan aurreikusitako zuzeneko kudeaketa moldeen arabera (ikus A.8).

Epaitegi honen ustera, 1etik 6ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustea alde batera, Arrasateko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek zuzentasunez bete dute 2009ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Udal Finantzaketaarako Foru Fondoak 2009an izandako likidazioa negatiboa izan da 3.077 mila euroko zenbatekoarekin; kopuru hori 2011, 2012 eta 2013ko urteetan itzuliko da (Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak onesten dituen abenduaren 23ko 3/2009 FAren Xedapen Gehigarriaren arabera) eta urte horietako itunpeko zergen partaidetzako konturako ordainketetatik proportzionalki murriztuko dira. Udalak likidazio negatiboa “Transferentzia arruntak” kapituluan sarrera txiki modura kontabilizatu du eta sarrera handi modura “Finantza Pasiboak” kapituluan; era honetara, zorra ondarean erregistratua geratu da.

- Epaitegi honen iritzira egin behar ziratekeen doiketek ondotik zehaztutako eragina dute 2009ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikinaren, Egoera Balantzearen eta Funts Propioen gainean:

| Kontzeptua | Aurrekontuzkoa Diruzaintza geldikina | Euroak milakotan | | |
|---|---|------------------------|--------------|----------------|
| | | Ondarezkoak Aktiboa | Pasiboa | Funts propioak |
| 09.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak | | | | |
| A.3 4. hiruhileko uraren errolda..... | 612 | 612 | - | 612 |
| A.4 Zerrajera guneko partaidetza kuotak | 383 | 383 | - | 383 |
| Sortu gabeko obligazioak, 09.12.31n erregistratuak | | | | |
| A.9 Zerrajeran etxebizitzen erosketa | 402 | (402) | (402) | - |
| GUZTIRA | 1.397 | 593 | (402) | 995 |

Epaitegi honen iritzira, 1. idatz-zatiko salbuespenen eragina salbuetsita, Arrasateko Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen Kontu Orokorrekin alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2009ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen eta 2009ko abenduaren 31ko finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian bere eragiketen emaitzena.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jaso dira bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

Arrasateko Udal 2002ko ekitaldian fiskalizatu zen. Gure iritzira, Txosten hartan jaso genituen akatsak zuzentasunez bideratu direla irizten diogu eta Epaitegi honek proposatutako gomendioei jarraiki, barne kudeaketa hobetu dela.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2009ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak hasiera batean 2009ko martxoaren 16ko Osokoak onetsi zituen; ordea, Gipuzkoako Lurralte Historikoaren Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 FAren 15.2 artikuluak (aurrerantzean, 21/2003 FA) behin-betiko onesprena dagokion ekitaldiaz aurreko urteko abenduaren 31 baino lehenago egitea aurreikusten du.
- Udalak ez du zuzen kalkulatu 2009ko ekitaldiaren aurrekontu emaitzarekiko doiketa, gastuei lotutako finantza baliabideek eragindako desbideratze kontzeptuan.
- 2009ko ekitaldian honako akats hauek azaleratu dira kontularitzako erregistroan:
 - Udalak "Transferentzia arruntak" kapituluan kontabilizatu du familiekin esku-hartzeko programaren gastua; ordea, duten izaeraren arabera "Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa" kapituluan kontabilizatu behar liratekeen zerbitzuak dira.
 - Udalak "Kapital transferentziak" kapituluan Zerrajera ingurua urbanizatzeko kuotetatik eratorritako sarrerak kontabilizatu ditu; kontularitzan zuzen erregistratzeko egokiena "Inbertsioen besterentzea" kapituluan kontabilizatzea litzateke.
 - Udalak 2009ko abenduaren 31ko egoera balantzearen "Diruzaintza" idazpuruan, 3.014 mila euroko zenbatekoa du erregistratua eperako ezarpenetan jarritako diruzaintzako soberakinei dagokiena; horiek, ordea, "Aldi baterako inbertsio finantzarioak" idazpuruan erregistratu behar lirateke.
 - Udalaren 2009ko abenduaren 31ko Egoeraren Balantzean, "Kaudimengabeziengatiko zuzkidura" aktiboaren idazpuruan 109 mila euroko diru zenbatekoa dago kontabilizatua; kopuru hori Udalak exekutatzeko dagoen epai irmoaren ondoren ordaindu beharko duela balioetsi duen zenbatekoa da. Balioespen hori "Erantzukizunetarako zuzkidura" pasiboaren kontuan erregistratu behar zatekeen.
 - 2009ko abenduaren 31n Udalak guztien erabilerara aldatu ditu ekitaldian zehar azpiegitura eta urbanizazioetan gauzatutako inbertsioak, amaituak dauden edo ez aintzat hartu gabe eta emakida hori euskarrituko duen agiri justifikagarrik izan gabe. Kontularitzan zuzen erregistratzeko, erabilera orokorrera jada amaituak dauden inbertsioak aldatu beharko lirateke.



III.2 SARRERA FISKALAK

- Udalak 2009ko otsailaren 17an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) udal zergak kobratzeko iragarkia eman du argitara, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Dirubilketa Erregelamendua onesten duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 18. Artikuluan eskatutako edukiarekin. Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 14. artikulua betearaztearren komenigarria litzateke iragarki horretan erroldak jendaurrean azaldu direneko tokia eta datak eta balizko errekurtoak zein alditan eta zein atalen aurrean egin daitezkeen; salbuetsita geratuko lirateke Ondasun Higiezinen eta Jarduera Ekonomikoan gainezko zergak, ekainaren 23ko 21/2009 Foru Dekretuak hala aginduta, bi errolda horiek jendaurrean azaltzeko obligaziotik salbuesten baitu.

III.3 LANGILERIA

- 2007ko uztailaren 23ko eta 2008ko maiatzaren 20ko osoko erabakien bitartez, hurrenez hurren, ordainsariak eta dedikazio esklusiboa alkatearentzat eta 1. alkateordearentzat finkatu ziren. Erabaki hauek GAOn argitaratu behar ziratzeen, Toki Jaurbidearen Oinarri arauei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.5 artikuluak agintzen duen moduan.
- Estatu mailan jarduteko gaitasuna duen funtzionarioarentzat gordetako diruzain lanpostua Udalaren funtzionario batek bete du; ordea, ez da behin-behineko izendapenik egin, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren 33. artikuluak xedatutakoaren aurka, estatu mailan jarduteko gaitasuna duten Toki Administrazio funtzionarioentzat gordetako Lanpostuak betetzeari buruzkoa.
- Udalaren eta Iturbide Egoitza Erakunde Autonomoaren Lanpostu Zerrendek (aurrerantzean, LZ) 2009ko ekitaldian indarrean zeudenek, hurrenez hurren, funtzionarioentzat gordetako 5 eta 1 lanpostu barne hartze dituzte, 2009ko abenduaren 31n hutsik daudenak eta Enplegu Eskaintza Publikoetan edo azken ekitaldietako behin-betiko zuzkidurarako deialdietan barne hartu ez direnak; horrek lau kasutan (diruzaintzako teknikaria, idazkaritza nagusiko letratua, arotza eta klinikako laguntzaileen koordinatzailea) EFPLren 17. artikulua urratzen du, LZ ez baita ekitaldiaren aurrekontuko aurreikuspenetara egokitu eta beste bietan, beriz, behin-behineko funtzionario bidez bete direnetan (peoiak), EFPLren 23. artikulua urratzen du; artikulu honek dio aurrekontuan diru-izendapena duten giza baliabideetarako beharrizanak eskurako giza baliabideekin bete ezin daitezkeenean, Enplegu Publikorako Eskaintzan jasoko direla.
- Udalaren eta Iturbide Egoitza Erakunde Autonomoaren LZak, 2009an indarrean zeudenak, bitarteko funtzionarioentzat edo aldi baterako lan-kontratuko langileentzat gordetako 10 eta 2 lanpostu barne hartzen dituzte, hurrenez hurren. LZren bitartez Administrazio Publikoek langile beharrizanak zehazten dituzte eta horiek asetzeko Enplegu Eskaintza Publikoak baliatu behar dira (EFPLren 13 eta 23. Artikuluak). LZn funtzionarioentzat edo lan-kontratuko langile finkoentzat gordeak ez dauden lanpostuak



jasotzea ez du aipatutako araudiak aurreikusten eta honenbestez, beharrizan iraunkorretarako direla ondorioztatzen da; aldiz, aurrekontu-plantilla dago premiazko eta aldiian behingo lanetarako dotazioak jasotzeko, iraunkortasun ezaren arabera (EFPLren 21. artikulua). Lanpostu horiek geroko ekitaldienetan zein egoera izan duten aztertu ondoren ikusi dugu horietako bi konsolidatu eta funtzionarioentzat gorde direla eta beste bi, amortizatu egin direla. Udalak saihestu egin behar du LZ aldi baterako kontratazioaren eta kontratazio iraunkorraren arteko zubi modura erabiltzea. Lanpostu guztiak aztertu behar lituzke eta ezaugarrien arabera izaera mugagabea baina ez iraunkorra duten lanpostuak (LZn aldi baterako langileak) bereizi behar lituzke beharrizan iraunkorrik dituzten lanpostuetatik (langile funtzionarioak edo LZn lan kontratu finkoa dutenak) (Iku A.6).

III.4 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean Udalean eta bere Erakunde Autonomoetan indarrean zeuden 15 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (Iku A.15):

- **Administrazio klausula partikularren pleguak**

Ondotik zehaztutako kontratuaren pleguek prezioaren irizpiderako formula aritmetikoak ezartzen dituzte; formula horiek objektiboak eta publikoak izan arren, eskaintza ekonomikoekin zigortzen dituzte, izan ere, puntuazio bera ematen baitite aurkeztutako proposamenen batez bestekoaren % 20 edo % 10arekiko, edota lizitazio aurrekontuaren % 10arekiko ehuneko berdin edo handiagoarekin prezioa jaitsita urrutiratzen diren eskaintzei (1, 2, 3, 4, 7, 8, 9, 10, 12, 14 eta 15 espedienteak). Hona hemen kontratuak: Udalak esleitutako 7 kontratu (horietako sei, 23.100 mila euroen zenbatekoan eta 1, aleko prezioetan), Iturbide Egoitza Erakunde Autonomoak esleitutako 2 kontratu (bat, 607 mila euroen zenbatekoan eta 1 aleko prezioetan) eta Aukea Kirol Erakunde Autonomoak esleitutako 2 kontratu (bat, 414 mila euroen zenbatekoan eta 1 aleko prezioetan) (1, 2, 3, 4, 7, 8, 9, 10, 12, 14 eta 15 espedienteak).

Udalak esleitutako 3 kontraturen pleguetan eskatutako behin-behineko bermeek (horietako bi, 9.602 mila euroen zenbatekoan esleitutakoak eta 1, aleko prezioetan) eta Iturbide Egoitza Erakunde Autonomoak esleitutako 2 kontratutan (bat, 607 mila euroen zenbatekoan esleitutakoa eta 1 aleko prezioetan) ez dira APKLTBren 35. artikuluak agindutako zenbatekoak osatu, izan ere, ehunekoak urteko baten gainean kalkulatu baitira eta ez kontratuaren prezio guztiaren gainean (7, 8, 9, 10 eta 12 espedienteak).

- **Esleipena**

Udalak 2.079 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako kontratu batean ez zaio esleipen hartzaileari pleguetan aurreikusitako berme osagarria aurkezteko eskatu, APKLTBren 36.3 artikuluak agindutakoa urratuz; bermeak, esleipen zenbatekoaren gainean % 6 egiten du (2. Espediente).

Iturbide Egoitza Erakunde Autonomoak kontratu 1 esleitu du aleko prezioetan; kontratu horren pleguetan eskatutako eta gordailatutako behin-betiko bermea urteko baterako



balioetsitako zenbatekoaren gainean % 4koaren parekoa da eta ez da kontratuko urte guztien gainean kalkulatu, APKLTBren 36. artikuluak agintzen duen moduan (10. espedientea).

Udalak 6.008 mila euroen zenbatekoan esleitutako 2 kontratu, Iturbide Egoitza Erakunde Autonomoak 607 mila euroen zenbatekoan esleitutako kontratu 1 eta Aukea Kirol Erakunde Autonomoak 414 mila euroen zenbatekoan esleitutako kontratu 1, guztiak ere Europako Erkidegoan argitara ematera behartuak zeudenak, esleipena Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean (DOUE) eta GAOn argitaratu da; ez, ordea, Estatuko Aldizkari Ofizialean, horrek APKLTBren 93.2 artikulua eta SPKLren 138. artikulua urratzen ditu, horien arabera ezinezkoa baita EAOn egin beharreko publizitatea Toki Administrazioek nork bere Egunkari edo Aldizkari Ofizialean egin dezakeenarekin ordezkatu (3, 9, 12 eta 14 zk.ko espedienteak).

Bi kontratutan, 1 Udalak 3.419 mila euroen zenbatekoan esleitutakoa eta 1, Aukea Kirol Erakunde Autonomoak 414 mila euroen zenbatekoan esleitutakoa, irizpideen balorazioa formulak erabilita eta formularik balia ezin daitekeen haiena batera egin da eta horrek SPKLren 134. artikulua urratzen du (4 eta 14 zk.ko espedienteak). Espediente hau maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua indarrean sartu aurreko da; dekretu honek zati batean SPKL garatzen du eta 134.2 artikulua betetzeko zein prozedura eta molde jarraitu behar diren arautzen du.

- Exekuzioa eta harrera

Udalak 2.756 mila euroen zenbatekoan esleitutako obra-kontratu 1ean, Udalbatzak onartutako 9 zk.ko aldaketaren ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak kontratuaren epea luzatzeko baimena eman zuen; ordea, Udalbatza da horretarako eskumena duen atala (1. espedientea).

Udalak 1.503 mila euroen zenbatekoan esleitutako kontratu 1ean Alkatetzak epearen 1. luzaketa onartu du, bera espediente horren kontratazio atala izan gabe; bada, eskumena Tokiko Gobernu Batzarrarena da. Gainera, epearen 2. luzaketa epez kanpo onetsi da, behin luzapen aldia igaroa zela (5. espedientea).

Udalak 2.079 mila euroen zenbatekoan esleitutako kontratu batean, kontratazio atalak ez du betetzeko epearen murrizketa onartu, kontratutik gauzatu beharreko unitateetako bat kendu izanaren ondorioz eta projektua egin duen enpresak betetzeko beste epe bat zehaztu ondoren; ezarritako epe berria bete da (2 zk.ko espedientea).



III.5 DIRU-LAGUNTZAK

- Udalak 2009ko ekitaldian auzoetako batzordeei jaiak ospatzeko 86 mila euroko diru-laguntzak eman dizkie.
Diru-laguntza horiek duten izaera errepikakorra eta berariazkoa aintzat hartuta, gomendagarria litzateke Aurrekontu Orokoretan horiek izenez jasotzea.
- Udalak 2009ko ekitaldian 102 mila euroko diru-laguntzak eman dizkie garapen bidean dauden herrialdeetara zuzendutako lankidetza egitasmoi; diru-laguntza horien oinarri-arauetan balorazio irizpideak eta horien haztapena barne hartzen da, ez ordea, balorazioaren emaitzaren arabera zenbatekoak izango diren laguntza ekonomikoak; honek azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Legearen (aurrerantzean DLO) 17.3 artikuluak xedatutakoa urratzen du. Horregatik, onuradunei emandako diru-zenbatekok ez daude behar bezain justifikatuak, DLOren 25. artikuluak agintzen duenaren aurka. Gainera, esleipenaren ebazpenean 7 onuradunen laguntzak betekizunak betetzen dituztelako agiriak egiaztatzeari meneratu zaizkio; horrek 2009rako onetsitako deialdiaren oinarri orokoren 8. artikulua urratzen du, diru-laguntzak eman aurretik Administrazioak erroreak konpontzeko eman beharreko epeak arautzen dituena.
- Aukea Kirol Erakunde Autonomoak 2009ko ekitaldian herriko kirol taldeei ohiko jardunbidea garatzeko 66 mila euroko diru-laguntzak eman dizkie; horretarako, eskabideak aurkeztu eta gastua justifikatzeko epea luzatu du; ordea, diru-laguntza horiek arautzen dituzten oinarri-arauetan alderdi hori ez dago aurreikusia.
- Udalak eta Aukea Kirol Erakunde Autonomoak ez du GAOn diru-laguntzak emateko ebazpenen laburpenik argitara ematen horiek banaka 3.000 euroak gainditzen dituztenean, eduki osoa zein tokitan dagoen kontsulta-gai adieraziaz.



IV. FINANTZEN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua. Konparazio ondorioetarako, 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko Gipuzkoako eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAU) udalen batez besteko 2007ko ekitaldiari buruzko datuak barne hartu dira (eskuragarri dauden azken datuak).

| | Milako eurotan | | | Euroak biztanleko | | | | |
|---|----------------|---------------|---------------|-------------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| | Urtea | | | Urtea | | | Erref. 2007_ | |
| | 07(*) | 08(*) | 09 | 07 | 08 | 09 | | Gip. EAU |
| Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.)..... | 13.632 | 13.349 | 12.848 | 616 | 608 | 583 | 476 | 425 |
| Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.)..... | 14.931 | 14.349 | 12.732 | 675 | 653 | 577 | 676 | 722 |
| Ondare sarrerak (5. kap.)..... | 308 | 772 | 492 | 14 | 35 | 22 | 12 | 27 |
| A. Diru-sarrera arruntak | 28.871 | 28.470 | 26.072 | 1.305 | 1.296 | 1.182 | 1.164 | 1.174 |
| Langileria gastuak (cap.1) | 7.799 | 8.265 | 8.919 | 353 | 376 | 404 | 352 | 349 |
| Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak (2. kap.)..... | 7.577 | 7.909 | 8.188 | 342 | 360 | 371 | 323 | 366 |
| Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.)..... | 4.930 | 5.878 | 5.964 | 223 | 268 | 271 | 209 | 166 |
| B. Funtzionamendu gastuak | 20.306 | 22.052 | 23.071 | 918 | 1.004 | 1.046 | 884 | 881 |
| Aurrezki gordina (A-B) | 8.565 | 6.418 | 3.001 | 387 | 292 | 136 | 280 | 293 |
| - Finantza gastuak (3. kap.)..... | 361 | 402 | 158 | 16 | 18 | 7 | 17 | 7 |
| Emaitzia arrunta | 8.204 | 6.016 | 2.843 | 371 | 274 | 129 | 263 | 286 |
| - Maileguen amortizazioa (9. kap.)..... | 1.227 | 1.060 | 1.082 | 56 | 48 | 49 | 50 | 48 |
| Aurrezki garbia | 6.977 | 4.956 | 1.761 | 315 | 226 | 80 | 213 | 238 |
| Inbertsio errealen betterentza (6. kap.)..... | 11.133 | 148 | 5.171 | 503 | 7 | 234 | 157 | 115 |
| Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.) | 1.654 | 2.510 | 5.581 | 75 | 114 | 253 | 56 | 70 |
| - Inbertsio errealak (6. kap.) | 9.918 | 9.733 | 17.744 | 448 | 443 | 804 | 387 | 317 |
| - Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.) | 724 | 915 | 765 | 33 | 42 | 35 | 46 | 24 |
| Kapitalezko eragiketen emaitza | 2.145 | (7.990) | (7.757) | 97 | (364) | (352) | (220) | (156) |
| Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.).... | 10.349 | (1.974) | (4.914) | 468 | (90) | (223) | 43 | 130 |
| Diruzaintzako geldikina | 14.383 | 10.752 | 5.643 | 650 | 489 | 256 | 277 | 501 |
| 12.31n zorpetzea | 8.648 | 7.587 | 6.505 | 391 | 345 | 295 | 410 | 149 |

(*) HKEEek fiskalizatu gabeko datuak.

OHARRA: Toki Erakundeen Kontuei buruzko HKEERen 2007ko behin-betiko txostena. "Gip." eta "EAU" erreferentziak, 20.001 eta 50.000 biztanle bitartean dituzten Gipuzkoa eta EAUko udalenei dagozkie.



Sarrera arruntak: % 10 egin dute behera aztergai izan dugun aldian eta azpimarratzeko da 2009ko ekitaldian izan duen % 8ko beheraldia 2008koaren aldean. Hona hemen bariazio aipagarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Sarrera hauek aztergai izan dugun aldian % 6 egin dute behera, (%4, 2009ko ekitaldian eta % 2, berriz, 2008ko ekitaldian aurreko ekitaldiarekiko. Bariazio hau, nagusiki, Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren Zergak eragindako diru-sarrera txikiagoei dagokie, izan ere, ekitaldi bakoitzean onartzen diren eraikuntza proiektu eta lizentziei meneratzen baitzaizkie eta honenbestez, merkatuko fluktuazioen baitako baitira. Zerga honek beheranzko bilakaera izan du aztergai izan den aldian (3.247, 1.971 eta 742 mila euro 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldian, hurrenez hurren). Gainerako sarrerek, aldiz, goranzko joera izan dute aztertutako aldian; hona hemen azpimarragarriena:
 - Zerga zuzenek eragindako sarrerak % 8 gehitu dira aldi horretan, batik bat presio fiskalak gora egin duelako urteko tipo zergagarrien igoeraren ondorioz (% 4 Ondasun Higiezinen gaineko Zerga; % 10 Ekonomia Jardueren gaineko Zerga; eta % 6, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga).
 - Tasa eta bestelako sarrerek eragindako diru-sarrerak % 27 igo dira aztertutako aldian eta azpimarratzekoak dira uraren zergen igoera (% 17) eta zaborren bilketa zergaren igoera (% 45). Uraren gaineko zerga % 5 eta % 6 igo da 2008 eta 2009ko ekitaldian, hurrenez hurren, diru-sarrerek zerbitzuaren kostuarekin ahalik eta gehien parekatzearen. Halaber, zaborren tasa % 14, % 10 eta % 20 igo da 2008ko ekitaldian, eta 2009ko ekitaldiaren 1. eta 2. seihiokoan, hurrenez hurren. Igoera garrantzitsu hau bi arrazoik eragin dute nagusiki:
 - a) Sasietako isurtegiak Deba Garaiko Mankomunitateari fakturatutako tasaren igoerak batetik, izan ere, isurtegiak lehenago San Markosen gordailatzen ziren Donostialdeako hondakinak bere gain hartzeko instalazioak egokitut beharrean da, harik eta erraustegi berria irekitzen den bitartean.
 - b) Bestetik, eratutako Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak 2009ko uztailaren 1etik aurrera beste tarifa bat ezarri du, Lurralde Historiko osorako bakarra dena; honek hondakinen altako kudeaketa gastuak jasoko ditu eta horien etorkizuneko tratamendurako abiarazi behar dituen inbertsio kostuak: transferentzia energetikorako eraikinak, konpostatzea, anbui, biometano eta biolehoretaren tratamendua.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Sarrera hauek 2009ko ekitaldian % 11 egin dute behera eta % 4, berriz, 2008ko ekitaldian aurre-aurreko ekitaldiarekiko. Nagusiki aitortutako sarrerek behera egin izanaren ondorioz justifikatzen da, itunpeko zergen dirubilketa azken bi ekitaldian jaitsi delako; beherapena 13.483, 12.712 eta 10.747 mila eurokoa izan da, hurrenez hurren 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldian, Udal Finantzaketa Foru Fondoaren kontzeptuan.



Funtzionamendu gastuak: Aztergai izan dugun aldiak % 14 egin dute gora. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Langile gastuak:** Aztergai izan dugun aldiak % 14 gehitu dira, batik bat soldatu igoeren ondorioz (% 5,2, 2008ko ekitaldian; % 2,4, 2009ko ekitaldian) eta ekitaldi horietan onetsitako Enplegu Publikorako Eskaintzak direla-eta plantillan izan diren igoeren ondorioz.
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa:** Aztergai izan dugun aldiak % 8 gehitu dira. 2009ko ekitaldian aurreko ekitaldiarekiko, azpimarratzeko da gutxitu egin direla jaiak ospatzeko gastuak (% 10); kultur ekintzenak (% 6), eta etxez etxeko laguntza kontratuak eragindako gastua (% 6). Nolanahi den ere, ekitaldi horretan aurrekoarekiko ondoko gastu hauek gora egin dutela ikusi dugu: argiteria gastuak (% 30) –urbanizazio berriak egin direlako- eta ludoteken kudeaketa gastuak (% 33) -kudeatu beharreko areto kopurua gehitu delako-.
- **Transferentzia arruntak:** Aztertutako aldiak % 21 egin dute gora (% 1, 2009an eta % 19, 2008an). Ondoko kontu-sail hauen bariazioak dira azpimarragarriak:
 - a) Hiri hondakinak kudeatzeko kontzeptuan Deba Garaiko Mankomunitateari transferentziak: % 15 eta % 23ko igoera 2008 eta 2009ko ekitaldietan aurreko ekitaldiarekiko, zerbitzuaren kostua garestitu izanaren ondorioz; horren berri Tasak eta bestelako sarrerak atalean eman dugu.
 - b) Gizarte Larrialdietarako Laguntza: % 60 eta % 133 igo dira 2008 eta 2009ko ekitaldietan; izan ere, ekitaldi horietako egoera ekonomikoak laguntza horiek jasotzen dituen onuradun kopurua gehitzea ekarri baitu eta gainera, diruz lagungarri den linea bakoitzeko banakako muga Eusko Jaurlaritzak urtero finkatutako gehiengora arte gehitu baitu; aurreko ekitaldietan, berriz, gehienera kopuru horien % 50a finantzatzen zen. 2009ko ekitaldian, EAETik eratorritako sarrerek emandako laguntzen zenbatekoaren % 80 egin dute.
 - c) Iturbide Egoitza: Udalak Erakunde Autonomoari ekitaldi bakoitzeko defizitari aurre egiteko emandako transferentziak 120, 587 eta 226 mila eurokoak izan dira 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldian, hurrenez hurren. Ekitaldi hauetan sortutako defizitak gora egin du egiturazko gastuei okupazio indize txikiagoarekin aurre egin behar izan baitzaie, izan ere, aztergai izan dugun aldiak eraberritze lanak egin baitira. 2009ko abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako Lurralde Historikoko hainbat udal egoitzei aparteko diru-laguntza ematea onetsi du 2008ko ekitaldiko defizitari aurre egiteko; horren ondorioz, Arrasateko udalari 229 mila euroko zenbatekoa dagokio.

Aurrezki gordina: Magnitude honek % 65 egin du behera aztertutako aldiak (% 25, 2008an eta % 53, 2009an, betiere aurre-aurreko ekitaldiarekiko), izan ere igo egin baitira funtzionamendu gastuak eta behera egin baitute sarrera arruntek.



Aurrezki garbia eta zorpetzea: Aurrezki garbiak finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du (interesak eta zorraren amortizazioa) eta Udalak baliabide arrunten bidez inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du. Aztertutako aldi finantza zama % 22 jaitsi bada ere, aurrezki garbiak % 75 egin du behera aldi horretan, aurreko idatz-zatietan azaldutako arrazoia direla eta; finantza zama jaisteko arrazoia erreferentiazko tipoak behera egin izana da eta mailegu berriak hitzartu ez izana (honen ondorioz, zorpetze maila % 25 jaitsi da). Gainera, gogoan izan behar dugu 2009ko abenduaren 31n Udalak ordaintzeko duela Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren 2009kobehin-betiko likidazioa, 3.077 mila euroren zenbatekoa egiten duena eta zorraren zenbatekoan barne hartu gabe dagoena.

Kapitalezko eragiketen emaitza: 2008 eta 2009ko ekitaldietako kapital eragiketen emaitzak, hurrenez hurren, 7.990 eta 7.757 mila euroko saldo negatiboa erakusten du eta 2.145 mila euroko saldo positiboa 2007ko ekitaldian. Azpimarratzeko da “Inbertsio errealen besterentzea” kapituluan 2007ko ekitaldiaren sarrera maila handia (adierazgarrienak dira Babes Ofizialeko Etxeak eta babestutako alokairuko etxebizitzak eraikitzeo Zerrajera inguruko lursailen salmenta, 7.414 mila euroren zenbatekoan, eta hirigintzako aprobetxamendua 2.189 mila euroan); sarrera horiek Lurraren Udal Ondarearen atal izanik, arautegian aurreikusitako helburuetarako inbertsioetan gauzatu dira 2007 eta 2008ko ekitaldienan. 2009ko ekitaldiaren inbertsioei dagokienez, bolumena aurreko ekitaldietakoa baino askoz handiagoa da (1,8 aldiz handiagoa); horren arrazoia da 3.218 mila euroren zenbatekoan aparteko inbertsioak egin izana, % 100ean Toki Inbertsiorako Estatuko Funtsak finantzatutakoak, eta aurreko ekitaldienan urte anitzeko iraupenarekin esleitutako obrek exekuzio handia izatea, hala nola, Iturbideren zaharberritzea, Zerrajeraren urbanizazioa, Abaroan zaharren egoitza berria eta Ferixalekuko igogailuak.

Eragiketa ez finantzarioen emaitza: 2008 eta 2009ko ekitaldiek 1.974 eta 4.914 mila euroko saldo negatiboak erakusten dituzte, Diruzaintzako Geldikinaren bitartez bi ekitaldienan % 38an kapitaleko eragiketen emaitzaren defizita finantzatu izanaren ondorioz eta gainera, 2009an UFFFaren likidazio negatiboaren itzulketa geroratzeagatik aitortutako sarreren ondorioz, emaitza hori % 25ean finantzatzen dutenak.

Diruzaintza geldikina: Magnitude honek beheranzko bilakaera adierazgarria izan du eta aztertutako aldi finantza % 61 egin du behera, azken bi ekitaldienan abiarazitako inbertsioetan finantzaketa iturri modura erabili delako.

Biztanleko Ratioak: Informazio modura, 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko (geruza honetan baitago udala) Gipuzkoa eta EAEko udalen batez besteko 2007ko ekitaldiari buruzko datuak barne hartu ditugu (eskuragarri dauden azken datuak). Udalaren datuekiko alderaketak egin ahal izateko, gogoan hartu behar dira zerbitzuak ematean dauden aldeak, izan ere, zenbaitetan zerbitzuak zuzenean ematen dira udal administraziotik bertatik, eta



beste zenbaitetan, erakunde autonomo, merkataritza sozietate publikoen bidez edo zeharka, mankomunitate, partzuergo edo merkataritzako beste sozietate batzuen bidez.

Ondorioa: Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikinak eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa.

Aztertutako aldian Arrasateko udalak inbertsio-ahalegin handia egin du eta hori finantzatu da bai kapitalezko diru-sarrerek (2007ko ekitaldian batik bat hirigintzako aprobetxamenduetatik eta ondasunak besterentzetik eskuratutakoa), bai aurrezki garbiarekin (nabarmen murriztu dena udalerrian eraikuntza jarduerari lotutako sarrerek behera egin dutelako eta atzeraldi ekonomikoaren aurrean itundutako zergek eragindako sarrerek murriztu direlako) eta bai GFAk 2009ko UFFFaren likidazio negatiboaren ordainketa atzeratuta emandako finantzaketarekin.

2010eko ekitaldian Udalak % 15 eta % 11ko aurrekontu txikiagoa onartu du aurreko ekitaldian likidatutako sarreren egoera eta gastuekiko (2009ko gastuen egoeran Diruzaintza Geldikinarekin finantzatutako gastuak murriztuta). Aurrekontu horietan aurreikusitako aurrezki gordin eta garbiek ez dute inongo bariaziorik izan balore absolutuetan magnitude hauek aurreko ekitaldian eman dituzten datuekiko; honela, bada, sarrera arruntak % 7ko igoerarekin presupuestatu dira (nahiz eta presio fiskala ez igo, UFFFren % 12koak baino sarrera handiagoak presupuestatu dira, GFaren aurreikuspen positiboen ondorioz), gastu arruntak % 8ko igoerarekin (borondatzeko gastuari eusteko ahaleginak egin arren) eta ia-ia aurreko ekitaldikoaren pareko finantza zama.

Ekitaldiko inbertsioak dira murriztu direnak, Udalak eskura dituen baliabideetara egokitutako delarik eta inbertsio horiek ekitaldiko aurrezki garbiarekin eta berriz zorpetze bidea erabilita finantzatuko direla aurreikusita; inbertsioak 3.015 mila eurokoak izango dira eta 2010eko urriaren 7ko Udalbatzak onartu du horiek gauzatzea.

Horri gehitu behar diogu 2010eko ekitaldian aurreko ekitaldietatik eratorritako kredituen txertaketa onetsi dela, 2009ko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikinaren % 86 egiten dutenak.

Mailegu berria gauzatzeaz batera, Ekonomia-Finantza Plana onetsi da 2010-2013 aldirako eta bertan, inbertsioen bolumena sustraitik murriztea eta gastu arruntari eustea aurreikusi da.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2009-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA Euroak milakotan

| SARRERAK | AURREKONTUA | | ESKUBIDE. | | KOBR. | % |
|--|-------------|-------------------|---------------|---------------|---------------|---------------|
| | HASIER. | ALDAK . B.-BETIK. | KITAT. | KOBR. | GABEA | EXEK. |
| 1. Zerga zuzenak | A.3 | 6.286 | - | 6.286 | 6.153 | 5.645 |
| 2. Zeharkako zergak | A.3 | 900 | - | 900 | 742 | 632 |
| 3. Tasak eta bestelako sarrerak | A.3 | 5.674 | - | 5.674 | 5.953 | 5.360 |
| 4. Transferentzia arruntak | A.4 | 15.427 | - | 15.427 | 12.732 | 12.290 |
| 5. Ondare sarrerak | | 405 | - | 405 | 492 | 458 |
| 6. Inbertsio errealen betterentzea | A.5 | 4.950 | 1.527 | 6.477 | 5.171 | 3.378 |
| 7. Kapital transferentziak | A.4 | 1.845 | 4.034 | 5.879 | 5.581 | 3.216 |
| 8. Finantza aktiboak | | 90 | 5.066 | 5.156 | 78 | 23 |
| 9. Finantza pasiboak | A.10 | 5.260 | - | 5.260 | 3.077 | 3.077 |
| DIRU-SARRERAK GUZTIRA | | 40.837 | 10.627 | 51.464 | 39.979 | 34.079 |
| | | | | | 5.900 | (*)86 |

(*) Exekuzioaren % kalkulatzerakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

| GASTUAK | AURREKONTUA | | | | | Euroak milakotan | |
|--|-------------|---------------|---------------|---------------|----------------|------------------|-----------------|
| | HASIER. | ALDAK. | B.-BETIK. | OBLIG. | ORDAIN. | % | |
| | | | AITORT. | ORDAINK. | GABEA | EXEK. | |
| 1. Langile gastuak..... | A.6 | 8.727 | 373 | 9.100 | 8.919 | 8.917 | 2 98 |
| 2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosk.... | A.7 | 9.295 | (161) | 9.134 | 8.188 | 7.028 | 1.160 90 |
| 3. Finantza gastuak..... | A.10 | 234 | (60) | 174 | 158 | 158 | - 91 |
| 4. Transferentzia arruntak | A.8 | 6.354 | 175 | 6.529 | 5.964 | 5.573 | 391 91 |
| 6. Inbertsio errealak | A.9 | 14.353 | 10.083 | 24.436 | 17.744 | 16.130 | 1.614 73 |
| 7. Kapital transferentziak | A.8 | 714 | 217 | 931 | 765 | 674 | 91 82 |
| 8. Finantza aktiboak..... | | 90 | - | 90 | 78 | 78 | - 87 |
| 9. Finantza pasiboak | A.10 | 1.070 | - | 1.070 | 1.082 | 1.082 | - 101 |
| GASTUAK GUZTIRA | | 40.837 | 10.627 | 51.464 | 42.898 | 39.640 | 3.258 83 |
| SARRERAK - GASTUAK | | | | | (2.919) | | |

| AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA | | | Euroak milakotan | | |
|----------------------------------|---------|-------|------------------|--------------|-------|
| | HASIER. | ZORRA | KOBR./ | AZKEN | |
| | | | BALIOG. | ORDAIN. | ZORRA |
| Zordunak | A.11 | 5.473 | 250 | 3.241 | 1.982 |
| Hartzekodunak | | 5.498 | - | 5.485 | 13 |
| AURREKONTU ITXIEN EMAITZA | | | | (250) | |



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

| | Euroak milakotan |
|--|------------------|
| Eskubide kitatuak..... | 39.979 |
| Obligazio aitortuak..... | (42.898) |
| AURREKONTU ARRUNTEKO ERAGIKETEN EMAITZA | (2.919) |
| AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA | (250) |
| EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA | (3.169) |
| Finantzazio-desbideraketak | (1.828) |
| Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak..... | 4.314 |
| DOITUTAKO AURREKONTU EMAITZA | (683) |

| | Euroak milakotan |
|---|------------------|
| Diruzaintza geldikina 09.1.1ean | 10.752 |
| Aurrekontuaren emaitza | (3.169) |
| Kaudimengab. horniduren aldakuntz. | (1.940) |
| DIRUZAINZAKO GELDIKINA 09.12.31-N | 5.643 |
| Diruzaintza | 4.436 |
| Aurrekontuko zordunak | 7.882 |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak (A.12) | 1.127 |
| Aurrekontuko hartzekodunak | (3.271) |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak (A.12)..... | (1.850) |
| Kaudimengabeziatarako hornidurak (A.11) | (2.681) |
| DIRUZAINZAKO GELDIKINA 09.12.31-N | 5.643 |
| Finanzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina..... | (1.828) |
| Epai judizialetarako zuzkidura | (109) |
| GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GELDIKINA | 3.706 |
| 09.12.31-N ZORPETZEA (A.10) | 6.505 |

| | Euroak milakotan |
|--|---------------------|
| KONPROMISO KREDITUAK | |
| KONTZEPTUA | 2010 GUZTIRA |
| Abaroako zaharren egoitza berria | 166 166 |
| Bizkaia Etorbideko igogailua | 233 233 |
| Uharkapeko barruko plazarako diru-laguntza..... | 50 50 |
| Txindoki Dorreko garajeen estalkirako diru-lag. | 61 61 |
| GUZTIRA | 510 510 |



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Pùblicas

EGOERAREN BALANTZEA 2008 ETA 2009-KO ABENDUAREN 31-N Euroak milakotan

| AKTIBOA | ERANSKINA | 31.12.09 | 31.12.08 | PASIBOA | ERANSKINA | 31.12.09 | 31.12.08 |
|---------------------------------------|---------------|---------------|----------|--------------------------------------|---------------|---------------|---------------|
| IBILGETUA | 56.815 | 54.314 | | FUNTS PROPIOAK | 52.519 | 57.107 | |
| Ibilgetu ezmateriala..... | A.9 | 697 | 765 | Ondarea..... | | 30.123 | 30.123 |
| Ibilgetu materiala..... | A.9 | 53.885 | 51.234 | Atxikitako ondarea..... | A.9 | (27.687) | (26.087) |
| Abian dagoen ibilgetua..... | A.9 | - | 55 | Lagatako ondarea | A.9 | (9.597) | (9.097) |
| Ibilgetu finantzarioa..... | A.9 | 2.233 | 2.260 | Erbilera orokorrerako ondarea | A.9 | (50.853) | (40.502) |
| | | | | Ekitaldi itxien ondorioak | | 102.670 | 94.781 |
| HAINBAT EKITALD. BANATZ. SARR. | 69 | 64 | | Galerak eta Irabaziak..... | | 7.863 | 7.889 |
| ZORDUNAK | 6.219 | 5.262 | | HARTZEKODUNAK, EPE LUZERA | 8.820 | 6.834 | |
| Aurrekontuzkoak..... | A.11 | 7.882 | 5.474 | Epe luz. zorrak | A.10 | 8.503 | 6.517 |
| Askotariko zordunak..... | A.12 | 252 | 150 | Ibilgetuko hartzekod. epe lab. | | 317 | 317 |
| Entitate publiko zordunak | A.12 | 875 | 500 | | | | |
| -Hornidurak | | (2.790) | (862) | HARTZEKODUNAK, EPE LABUR. | 6.200 | 9.494 | |
| FINANTZA-KONTUAK | 4.436 | 13.795 | | Aurrekontuko hartzekodunak | | 3.271 | 5.498 |
| Diruzaintza | 4.436 | 13.795 | | BEZarengatiko hartzek. | A.12 | 46 | 185 |
| | | | | Entitate publiko hartzekodunak..... | A.12 | 615 | 704 |
| | | | | Epe lab. zorrak | A.10 | 1.079 | 1.070 |
| | | | | Bermeak eta gordailuak | A.12 | 1.189 | 2.037 |
| AKTIBOA | 67.539 | 73.435 | | PASIBOA | | 67.539 | 73.435 |

2008 ETA 2009-KO EKITALDIEN GALERA-IRABAZIEN KONTUA Euroak milakotan

| GASTUAK | 09 urtea | 08 urtea | DIRU-SARRERAK | 09 urtea | 08 urtea |
|--------------------------------------|--------------|--------------|--|------------|------------|
| Langileen gastuak..... | 8.962 | 8.308 | Negozio zifratik zenbat. garbia | 4.774 | 4.347 |
| Kanpoko zerbitzuak | 8.533 | 7.974 | Zerga zuzenak | 6.153 | 5.955 |
| Emand. transf. eta dirulag..... | 6.729 | 6.785 | Zeharkako zergak | 742 | 1.971 |
| Amortizaziorako zuzkidura..... | 1.520 | 1.401 | Jasotako transf. eta dirul..... | 18.313 | 16.859 |
| Kaudimengab. zuzkid. aldak..... | 1.939 | (87) | Bestel. kudeaketa sarrerak | 4.981 | 1.472 |
| USTIAKETA MOZKINAK | 7.280 | 6.223 | | | |
| Finantza gastuak..... | 158 | 402 | Sarrera finantzarioak..... | 298 | 584 |
| Finan. inberts. zuzkid. bariaz | 28 | (124) | | | |
| FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK | 112 | 306 | | | |
| Urtealdi itxien gtu.-galerak..... | 250 | 503 | Urtealdi itxien sarr. eta mozki..... | - | 5 |
| | | | EKIT. ITXIEN EMAITZA NEGATIBOAK | 250 | 498 |
| Ibilgetutik erorritako galerak | 15 | - | Ibilgetua besterentz. mozrina | 736 | - |
| | | | Apartekoak..... | - | 1.858 |
| APARTEKO EMAITZA POSITIBOAK | 721 | 1.858 | | | |
| EKITALDIAREN MOZKINAK | 7.863 | 7.889 | | | |



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Pùblicas

V.2 ITURBIDE EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOA

2009-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

| SARRERAK | AURREKONTUA | | | ESKUBIDE. | | KOBR. | % | |
|---------------------------------------|-------------|--------------|------------|--------------|--------------|--------------|------------|-----------|
| | Eranskina | HASIER. | ALDAK. | B.-BETIK. | KITAT. | KOBR. | GABEA | EXEK. |
| 3. Tasak eta bestelako sarrerak | A.3 | 1.032 | - | 1.032 | 1.009 | 1.007 | 2 | 98 |
| 4. Transferentzia arruntak | A.4 | 1.756 | 125 | 1.881 | 1.818 | 1.457 | 361 | 97 |
| 8. Finantza aktiboak..... | | 8 | - | 8 | 2 | 1 | 1 | 25 |
| GUZTIRA | | 2.796 | 125 | 2.921 | 2.829 | 2.465 | 364 | 97 |

| GASTUAK | AURREKONTUA | | | OBLIG. | | ORDAIN. | % | |
|---|-------------|--------------|------------|--------------|--------------|--------------|------------|-----------|
| | Eranskina | HASIER. | ALDAK. | B.-BETIK. | AITORT. | ORDAINK. | GABE | EXEK. |
| 1. Langileen gastuak | A.6 | 651 | 28 | 679 | 674 | 674 | - | 99 |
| 2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak... | A.7 | 2.137 | 97 | 2.234 | 2.153 | 1.795 | 358 | 96 |
| 8. Finantza aktiboak..... | | 8 | - | 8 | 2 | 2 | - | 25 |
| GUZTIRA | | 2.796 | 125 | 2.921 | 2.829 | 2.471 | 358 | 97 |
| SARRERAK - GASTUAK | | | | | | - | | |

| AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA | | | Euroak milakotan | | |
|-----------------------------|---------|-------|------------------|---------|-------|
| | HASIER. | ZORRA | KOBR./ | ORDAIN. | AZKEN |
| Zordunak..... | | 288 | - | 288 | - |
| Hartzekodunak | | 327 | - | 327 | - |
| AURREKONTU ITXIAK | | | - | | |

| AURREKONTUAREN EMAITZA | | | Euroak milakotan | | |
|---|--|--|------------------|---------|--|
| Eskubide kitatuak | | | | 2.829 | |
| Obligazio aitortuak | | | | (2.829) | |
| AURREKONTU ARRUNKTEKO ERAGIKETEN EMAITZA | | | - | | |
| AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA | | | - | | |
| EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA | | | - | | |
| Finantziazo-desbideratzeak | | | | - | |
| Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak | | | | - | |
| DOITUTAKO AURREKONTU EMAITZA | | | - | | |



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Pùblicas

| DIRUZAINTZAKO GELDIKINA | Euroak milakotan |
|--|------------------|
| Diruzaintza geldikina 09.1.1ean | - |
| Aurrekontuaren emaitza | - |
| Kaudimengab. horniduren aldakuntz. | - |
| DIRUZAINZA GELDIKINA 09.12.31-N | - |
| Diruzaintza..... | 107 |
| Aurrekontuko zordunak..... | 364 |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak..... | - |
| Aurrekontuko hartzekodunak | (358) |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak | (113) |
| Kaudimengabeziatarako zuzkidura..... | - |
| DIRUZAINZA GELDIKINA 09.12.31-N | - |
| Finantzaketa atxikia duten gastuetarako diruzaintza geldikina..... | - |
| GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA | - |
| | - |
| 09.12.31-N ZORPETZEA | - |

| EGOERAREN BALANTZEA 2008 ETA 2009-KO ABENDUAREN 31-N | | | | Euroak milakotan | |
|--|--------------|--------------|-------------------------------------|------------------|--------------|
| AKTIBOA | 31.12.09 | 31.12.08 | PASIBOA | 31.12.09 | 31.12.08 |
| IBILGETUA | 4.874 | 3.468 | FUNTS PROPIOAK | 4.874 | 3.468 |
| Ibilgetu materiala..... | 4.874 | 3.468 | Atxikita dagoen ondarea..... | 5.853 | 4.315 |
| | | | Ekitaldi itxien ondorioak | (847) | (756) |
| ZORDUNAK | 364 | 288 | Galerak eta Irabaziak..... | (132) | (91) |
| Aurrekontuzkoak..... | 364 | 288 | HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA | 471 | 359 |
| FINANTZA-KONTUAK | 107 | 71 | Aurrekontuko hartzekodunak | 358 | 327 |
| Diruzaintza | 107 | 71 | Entitate publiko hartzekodunak..... | 28 | 32 |
| | | | Bestel. hartzekodun ez aurrek | 85 | - |
| AKTIBOA | 5.345 | 3.827 | PASIBOA | 5.345 | 3.827 |

| 2008 ETA 2009-KO EKITALDIEN GALDU-IRABAZIEN KONTUA | | | | Euroak milakotan | |
|--|----------|----------|---|------------------|-------------|
| GASTUAK | 09 urtea | 08 urtea | DIRU-SARRERAK | 09 urtea | 08 urtea |
| Langileen gastuak..... | 675 | 633 | Negozio zifratik zenbateko garbia | 982 | 718 |
| Kanpoko zerbitzuak..... | 2.152 | 1.957 | Jasotako transf. eta dirul. | 1.818 | 1.836 |
| Amortizaziorako zuzkidura..... | 132 | 91 | Bestel. kudeaketa sarrerak..... | 27 | 33 |
| | | | USTIAKETA GALERAK | (132) | (94) |
| FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK | - | 3 | | | |
| | | | EKITALDIAREN GALERA | (132) | (91) |



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.3 AUKEA KIROLAREN ERAKUNDE AUTONOMOA

2009-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

| SARRERAK | AURREKONTUA | | | | ESKUBIDE. | KOBR. | % |
|---------------------------------------|-------------|--------------|-----------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| | Eranskina | HASIER. | ALDAK. | B.-BETIK. | | | |
| 3. Tasak eta bestelako sarrerak | A.3 | 699 | 28 | 727 | 752 | 711 | 41 103 |
| 4. Transferentzia arruntak | A.4 | 996 | 43 | 1.039 | 975 | 954 | 21 94 |
| 5. Ondare sarrerak | | 8 | - | 8 | 7 | 6 | 1 88 |
| 8. Finantza aktiboak | | 17 | - | 17 | - | - | - - |
| GUZTIRA | | 1.720 | 71 | 1.791 | 1.734 | 1.671 | 63 97 |

Euroak milakotan

| GASTUAK | AURREKONTUA | | | | OBLIG. | ORDAIN. | % |
|---|-------------|--------------|-----------|--------------|--------------|--------------|---------------|
| | Eranskina | HASIER. | ALDAK. | B.-BETIK. | | | |
| 1. Langileen gastuak | A.6 | 649 | 35 | 684 | 680 | 680 | - 99 |
| 2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak... | A.7 | 897 | 35 | 932 | 914 | 808 | 106 98 |
| 3. Finantza gastuak | | 1 | - | 1 | 1 | 1 | - 100 |
| 4. Transferentzia arruntak | A.8 | 156 | 1 | 157 | 139 | 71 | 68 89 |
| 8. Finantza aktiboak | | 17 | - | 17 | - | - | - - |
| GUZTIRA | | 1.720 | 71 | 1.791 | 1.734 | 1.560 | 174 97 |

SARRERAK - GASTUAK

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

| | HASIER. | ZORRA | BALIOG. | ORDAIN. | AZKEN ZORRA |
|--------------------------|---------|-------|---------|---------|-------------|
| | | | | | |
| Zordunak | | 151 | - | 151 | - |
| Hartzekodunak | | 181 | - | 181 | - |
| AURREKONTU ITXIAK | | | | | |

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

| | |
|---------------------------|---------|
| Eskubide kitatuak | 1.734 |
| Obligazio aitortuak | (1.734) |

AURREKONTU ARRUNTEKO ERAGIKETEN EMAITZA

-

AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA

-

EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA

-

Finantziazo-desbideraketak

-

Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak

-

DOITUTAKO AURREKONTU EMAITZA

-



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Pùblicas

| DIRUZAINTZAKO GELDIKINA | Euroak milakotan |
|--|------------------|
| Diruzaintza geldikina 09.1.1ean | - |
| Aurrekontuaren emaitza | - |
| Kaudimengab. horniduren aldakuntz. | - |
| DIRUZAINTZA GELDIKINA 09.12.31-N | - |
| Diruzaintza..... | 144 |
| Aurrekontuko zordunak | 63 |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak..... | 1 |
| Aurrekontuko hartzekodunak | (174) |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak | (34) |
| Kaudimengabeziatarako zuzkidura..... | - |
| DIRUZAINTZA GELDIKINA 09.12.31-N | - |
| Finantzaketa atxikia duten gastuetarako diruzaintza geldikina..... | - |
| GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINTZA-GELDIKINA | - |
| 09.12.31-N ZORPETZEA | - |

| EGOERAREN BALANTZEA 2008 ETA 2009-KO ABENDUAREN 31-N | | | | Euroak milakotan | |
|--|-------------------|-------------------|--|-------------------|-------------------|
| AKTIBOA | 31.12.09 | 31.12.08 | PASIBOA | 31.12.09 | 31.12.08 |
| IBILGETUA | 18.873 | 19.302 | FUNTS PROPIOAK | 18.873 | 19.302 |
| Ibilgetu ezmateriala..... | 8 | 2 | Atxikita dagoen ondarea..... | 21.834 | 21.772 |
| Ibilgetu materiala..... | 18.865 | 19.300 | Ekitaldi itxien ondorioak..... | (2.470) | (1.996) |
| | | | Galerak eta Irabaziak..... | (491) | (474) |
| ZORDUNAK | 64 | 152 | HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA | 208 | 227 |
| Aurrekontuzkoak..... | 63 | 151 | Aurrekontuko hartzekodunak | 174 | 181 |
| Askotariko zordunak..... | 1 | 1 | Entitate publiko hartzekodunak..... | 33 | 42 |
| | | | Fidantzak eta jasotako gord. | 1 | 4 |
| FINANTZA-KONTUAK | 144 | 75 | | | |
| Diruzaintza | 144 | 75 | | | |
| AKTIBOA | 19.081 | 19.529 | PASIBOA | 19.081 | 19.529 |

| 2008 ETA 2009-KO EKITALDIEN GALDU-IRABAZIEN KONTUA | | | | Euroak milakotan | |
|--|----------|----------|---|------------------|----------------|
| GASTUAK | 09 urtea | 08 urtea | DIRU-SARRERAK | 09 urtea | 08 urtea |
| Langileen gastuak | 681 | 653 | Negozio zifratik zenbateko garbia | 752 | 708 |
| Kanpoko zerbitzuak | 913 | 878 | Jasotako transf. eta dirul. | 975 | 993 |
| Emand. transf. eta dirulag..... | 139 | 173 | Bestel. kudeaketa sarrerak..... | 7 | 4 |
| Amortizaziorako zuzkidura..... | 491 | 474 | USTIAKETA GALERAK | 490 | 473 |
| | | | EMAITZA FINANTZARIO NEG. | 1 | 1 |
| | | | EKITALDIAREN GALERA | 491 | 474 |





ARRASATEKO UDALAK 2009KO URTEALDIAN IZANDAKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI EGINDAKO ALEGAZIOAK

1. ARRASATEKO UDALAREN IZENEAN, ORAINGO ALKATEAK EGITEN DITUEN ALEGAZIOAK

I. SARRERA

Arrasateko Udalean txostena (soilik erdaraz) jaso genuen 2011ko ekainaren 3an, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren osoko bilkurak onartua, 2009ko urtealdiko kontuen fiskalizazioari dagokionez, eta 15 eguneko epea ematen zuen Udalak bidezkotzat jotzen dituen alegazioak, agiriak edo frogagiriak aurkezteko. Udalak epe hori handitzeko eskatu zuen, eta Epaitegiak onartu egin zuen, eta handitu zuen hilabete batera; epea bukatuko da 2011ko uztailaren 21ean.

Hemen jasotzen diren alegazioek eta justifikazioek fiskalizazio txosten horri buruz dihardute.

Bestalde, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) ezarritako jarraibideak betetzen saiatu gara, aurkeztu beharreko alegazio idatzian bete beharreko baldintza formalei dagokienez, non-eta adierazten zuen zein ataletan dagoen aipatuta gomendio hori, haren aipamen labur batekin, geroago udalaren alegazioa aurkeztu eta garatzeko.

Azaldutakoagatik, hartarako emandako epean, **ALEGAZIO** hauek egiten ditut:

II. IRITZIA

II.1. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Legezkotasuna bete izanari dagokionez, ez gatoz bat edo beharrezkotzat jotzen dugu ñabardurak aipatza Epaitegiak adierazitako eragozpen hauetan:

LANGILEAK

- *Legezko estaldurariak gabe lizentzia ordaindu berezia ematea, jubilazio edo erretiro ez osoa, 5 langileri (4 dira udalekoak eta 1 AUKEA kirol erakunde autonomokoa), hau da, lanaldi ez osoan benetako zerbitzua ez emateko baimena eman izana.*

Emandako lizentziak zor zaizkie Udalbatzaren eta ordezkaritza sindikalaren artean izandako negoziazio kolektiboaren eremuan hartutako akordioei, eta diru-konpentsazio erreala izan dute, hau da, sinatutako lan hitzarmenetan jasota dauden borondatezko erretiroengatik primak kobraatu ez izana. Edozelan ere, lizentzia horiek dagoeneko Udal honek ez ditu ematen, eta 2010eko urtealdian erretiro ez osoan sartu diren edo aurerrantzean sartuko diren langileak behartuta daude edo behartuta egongo dira lanaldiaren arabera benetako zerbitzua ematen.



KONTRATAZIOA

- *Familian esku-hartzeko programa. Udalak alde batera utzi ditu administrazio kontratazioa arautzen duten adjudikazio prozedurak eta moduak.*

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren iritziak dio “*Udalak gastu bat exekutatu duela familial esku-hartzeko programaren barruan profesional independenteen zerbitzuak emateagatik, eta alde batera utzi dituela administrazio kontratazioa arautzen duten adjudikazio prozedurak eta moduak*”.

Horri buruz, adierazi behar da familial esku-hartzeko programa dela Udalak laguntza bat ematea (horregatik kontabilizatzen da diru-laguntza moduan) adingabeak dituzten familia jakin batzuei, babesgabeko arrisku egoeran daudenak, dagokion profesionalak esku-hartzetik datozen gastuen portzentaje bati aurre egiteko.

Kasuen tipologiak (oso heterogeneoa) eta horien bolumenak, kanpoko profesionalek (terapeuta-psikologoak, familia hezitzaleak, eta abar) egin beharreko lanaren zatiari dagokionez, gure iritziz, zaildu egiten dute profesionalen talde bakar batek programa eman ahal izatea,. Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailak uste du, kontuan hartzen badugu zenbat egoeratan esku-hartu behar izan duen Udalak, egokiagoa dela profesional kualifikatuen zerrenda bat edukitzea, profesional horien jarduna bermatzen duten baldintzak betetzen dituenak. Horrela, eta programan aztertu beharreko kasuaren arabera, Gizarte Zerbitzuetako sailak aurrez aukeratutako profesionalenak batengana / batzuengana joko luke, ezaugarri eta arazo bereziak dituzten kasu batzuei erantzuteko. Kasu guztiak ez dira antzekoak, eta kontratatu daitezkeen profesional guztiak ere ez dute profil egokirik eskatutako zerbitzuak emateko. Fakturatutako zerbitzuen ezaugarri horietatik abiatuta, nahiz eta diru-laguntza moduan ez hartu eta bai konsideratu Udalaren kontratazioa, Udal honek uste du 7 profesionalen esku-hartzeark, urteko fakturazio osoa izanik 134,6 mila euro (10 profesional eta 123 mila euro 2010ean), lege aldetik uztartze ezin hobea duela kontratu txikiko trimitazio batekin.

Hori guztsia kontuan izanik Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Lege berriak onartu dezakeela familial esku-hartzeko programaren uztartze egokiago bat, esparru-akordioen bidez edo kontratazioko sistema dinamikoen bidez, Udal honek jarraitzen du pentsatzen zerbitzuaren ezaugarri bereziek ez dutela aholkatzen, ez baita formularik egokiena, kontratu bakar batean jasotzea.

- *Iturbide Egoitza berritzeko obrak. Onartutako aldaketen kopuruak urratu egiten ditu kontratazio araudiaren lizitazio printzipioak.*

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenak dio kontratu honek “*11 aldaketa izan dituela, eta beharrizan berriei edo ustekabekoei erantzuten badie ere eta behar bezala*



trmitatu badituzte ere indarrean dagoen araudiaren arabera, %33 gehitu dutela kontratuaren hasierako prezioa. Aldaketa horien kopuruaren garrantziak urratu egiten ditu kontratazio araudiaren lizitazio printzipoak". Uste dugu Udalak aurrera eramandako jarduera dela zuzena eta zuzenbidearekin bat datorrela. Izan ere, HKEEk baieztago du aldaketak egin direla beharrizan berriak eta ustekabekoak egon direlako eta behar bezala trmitatu direla, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Hala, kontratu honi aplikatu dakioken araudian oinarritutik, hau da, HAKLTB (ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretua), kontratuak aldatzeko legezko aukera dago interes publikoa dagoenean, betiere beharrizan berriak edo ustekabeko arrazoiak daudelako, eta behar bezala justifikatuta espedientearen. Hortaz, justifikatu eta sinatzera baldintzaturik, HKEEk berak dioenez behar bezala bete duelarik Udalak, legez aukera dago kontratuak aldatzeko, portzentaje mugarik gabe.

Zehazki, HAKLTBk ezartzen duen muga bakarra da kontratuaren aldaketak izatea amaitzeko arrazoi potestatiboa, bai kontratistarentzat bai Administrazioarentzat, aldaketa horiek dakartenean kontratuaren prezioa aldatzea, hasierako prezioaren ±%20 tartetik kanpo, edo proiektuaren aldaketa garrantzitsua izaten dutenean. Hortaz, Udalak uste du Iturbide Egoitza berritzeko obren kontratuari egindako aldaketek ez dituztela urratzen kontratazio araudiaren lizitazio printzipoak. Edozelan ere, aukera du bai kontratistak bai Udalak berak kontratua amaitzea, eta aukera hori ez zuen eskatu ez batak ez besteak; hortaz, kontratu harremanak jarraitu egin zuen.

Are gehiago, proiektu horri dagozkion obren zati batek, zehazki larrialdietako eskailera egitea, 213 mila euroko zenbatekoa, aplikatzeko den legezko araudian aldaketa egon delako derrigorrezkoa dena, Udalaren eta obren adjudikazioidunaren arten akordiorik egon ez delako, lizitazio espezifikoko prozedura berria izan du obren zati horretan, Udalak uste baitzuen bideragarria zela hura exekutatzea era bereizian, proiektu nagusiari buruz. Baina hasierako kontratuari egindako gainerako aldaketen inguruan, ulertu genuen ezin zirela exekutatu era bereizian eta legez uztartzen zela ezin hobeto kontratazio araudian, kontratuak aldatzeko kasuei dagokienez.

- *Ferixaleku-Altamira eta Makatzenako igogailuak: Ez justifikatu izana batera kontratatu behar direla kontratua egitea eta obren exekuzioa, proiektuaren aldaketa batekin, aurkeztutako aurreproiektua funtsean aldatzen baitu, eta hori da kontratua hutsaltzeko arrazoia.*

Kasu honetan lehiaketa bat da, eta haren helburua zen batera kontratatzea proiektua bera egitea eta dagozkion obrak exekutatzea, Udalak uste baitzuen aplikatu daitekeen kasuetan zegoela, eta Administrazio Publikoko Kontratuiei buruzko Legearren Testu Bateginaren 2/2000 LEDren hitzen arabera hauek dira horiek:

- Eraikuntza sistema erabakigarria izan litekeenean proiektuaren funtsezko ezaugarrietarako.



- Obren ezaugarriak nolakoak diren ikusita, trazatua, diseinua eta aurrekontua modu batera baino gehiagotara tratatzeko aukera dagoenean.

Ba, horixe, Arrasateko Udalak ulertu zuen bi kasuok ematen zirela, eta “eraikuntza sistema erabakigarria izan litekeela proiektuaren funtsezko ezaugarrietarako” aplikatu zitekeen argi eta garbi kontratazio prozedura honetan, eta halaber “trazatua eta aurrekontuaren aurrerapen bat”en berri zeukan. Zehazki, lehen kasuari dagokionez, igogailuen fabrikatzaleen ezaugarri espezifiko ondorioz, ezinbestean jakin beharra dago, edo behintzat erabakigarri da hori jakitea, zein aparatu instalatu behar diren, horrela proiektuaren gainerako zatiak egin ahal izateko. Beste era batera, proiektua idaztea kontratatzu gero lehenbizi, zera gertatu dakiguke, proiektuak jasotzen duela igogailu eredu zehatz bat, gero obren lizitazio aldian ezin ordezkatu dezakeguna beste ezein eredu edo markaz (hortaz, proiektuaren egileak igogailuaren fabrikatzalea erabakitzentzu du, eta kasu honetan da proiektu horren zati nagusietako bat), edo beste kasu batean, obra zibilari dagokion proiektuaren zatiak balio ez izatea empresa lizitatzaillek proposatutako igogailu aparatuengatik, eta horrek ekarriko luke kontratua aldatzea. Bigarren kasuari dagokionez, adierazi behar da espedientelean bertan agertzen dela kontratazio bateratuaren prozedura erregulatzen zuen Baldintzen Agiria zetorrela “Trazatuaren Proiektu” batekin, zehazten zituelarik trazatuak, lehorratzea, lehenago zeuden bideekiko loturak, diseinu ezaugarri orokorrak eta igogailuen beste hainbat gai tekniko, bai eta kontratuak duen aurrekontu estimatua ere.

Kontratatzeko modua erabaki eta gero, proiektua egiteko aldian Udalak berak proposatu zuen igogailuetako bat lekuz aldatzea, uste baitzuen kokaleku berriez (egingarriak, proposamenak barne hartzen duen pilotalekutik gertuko eremuaren birmoldaketa txikiaren ondorioz) hobeto erantzuten zitzaiola irisgarritasunari, bai Altamirako beheko aldetik nahiz goiko aldetik, murriztu barik ezertan ere Oinezkoen Zumardiarekiko loturaren ezaugarrietan, eta esango genuke hobetu egiten duela, igogailua hartzeko lekua hurbilago baitago hiriguneko zentro nagusitik. Kokaleku aldaketa horrek ekarri zuen proiektua aldatzea eta horren ondorioz hasieran jasotako obrak aldatzea.

Hasiera batean Udalaren iritzia izan zen kontratua amaitzea, uste baitzuen aldaketa zela funtsezkoa, nahiz eta proiektuan jasota zegoen proposamena, lehen ere esan bezala, ezin hobeto egokitzen zitzaien udal interesei. Hala, administrazio klausulen agiriaren 8. klausulan jasotakoaren arabera, aukera zegoen kontratua hutsaltzeko, baina hutsaltze hori oinarritu behar zen proiektua ez zela Udalaren gogokoa, eta hori ezingo zuten erabili geroagoa, obrak lizitatzeko. Hain zuzen ere, klausula horrek hau zioen:

“Baldin eta Udal eta kontratista ados jartzen ez badira proiektuaren norainokoaz, edukiaz eta prezioez, kontratua hutsaltzea ekarri dezake horrek, eta adjudikazioduna obrak exekutatzetik salbuetsita egongo da, Udalaren aurrean Proiektuak idazteari dagozkion ordainsarien %50 ordaintzeko eskubidea baino ez.”



Horren ondorioz, proiektu berriak, batetik, Udalaren adostasuna zeukanez, baina, bestetik, aurreproiektuarekin ez zetorrenez bat funtsean, haren prezioak kontratacio gai izan zirelarik, Udalai saiatu zen kontratua amaitzen elkarrekin ados jarrita, idatzitako proiektu berrian oinarriturik obrak lizitzeko asmoz. Hala ere, elkarrekin ados jarrita kontratua amaitzeko aukera, adjudikazioduna ados ez zegoenez, alde batera utzi zen, ordaindu beharreko kalte-ordainak oso handiak izan zitezkeen eta. Horren ondorioz, HAKLTBean (ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretua) jasota datorren legezko aukera erabiltzearen alde egin zen, hau da, beharrizan berriak edo ustekabeko arrazoiak direla-eta interes publikoko arrazoiengatik kontratuak aldatzeko aukera, eta espedientean jasota utziz Udalak erabaki horiek hartzeko izan dituen motiboak eta balorazioak.

HKEEk berak dakienez, Epaitegiak planteatutako gaiak edo arazoak, berdin-berdinak, hau da, proiektua eta obra bereizirik kontratatzeko eta tramitatzeko komenientzia edo ez, bai eta kontratua hutsaltzeko aukera ere eta prozedura berri bat tramitatzeko ere, obra proiektu aldatuan oinarriturik obrak adjudikatzeko, eztabaidatu egin genituen gure artean Udalean bertan, eta horri buruz elkarrengandik urrun dauden iritzi teknikoak izan genituen. Baino, zer horretara iritsita, ez gatoz bat Udalak azkenean aukeratu duen horri ematen dion “legez bete ez izana”ren balorazioarekin. Gure iritziz, egin diren jarduerek dagokion legezko estaldura daukate, bai proiektua eta obra idaztearen baterako tramitazioari dagokionez, bai egin beharreko obra proiektuan sartutako aldaketei dagokienez.

- *Iturbide Egoitzako sukaldearen zerbitzu partziala, jarraitu egin dugu hura exekutatzen, nahiz eta kontratua amaituta egon.*

Geure gain hartzen dugu, zalantzak gabe, akats hori; dena den ere, aipatu behar dugu dagoeneko konponduta dugula, 2010ean sukalde kontratuaren adjudikazioaren bidez.

Edozelan ere, egoera azaldu eta testuingurua agertzeko, komeni da adieraztea “pertsona nagusientzako zahar etxeen zentroen zerbitzuaren eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola 2008/12/5etik aurrera, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legean ezarritakoaren arabera; erregulatutako eskumena eskuordetzea osatzeko epea edo azken eguna bukatu zen 2009/12/25ean.

Horregatik guztiagatik, 2008an eta 2009an hainbat bilera egin ziren Foru Aldundikoekin eta Eudelekoekin, implikatuta dauden udalen interesa batzen duen erakunde horrekin, eta foru erakundearen aldetik gidalerroak edo irizpideak jaso genituen, aldi iragankorra kudeatzeko, aurreikusitako eskumen eskuordetzea bukatu arte. Jasotako jarraibide edo gidalerroen artean, logikaz, horietako bat zen ez hartza, ahal den neurrian, konpromiso edo kontratu berririk, bai langileei buruz bai kontrataazioari buruz, Foru Aldundiak bere kudeaketa erabakiak hartu ahal izateko ahalik eta modurik libreenean. Baino benetan gertatu dena da ez dela bete 12/2008 Lege horretatik datozen obligazioak (alegazio idatzi hau idazten ari garen egunean eskuordetzea dago egin gabe, eta, are okerragoa dena, ez



dugu espero hori gauzatzea epe laburrean) eta horrek ekarri du Udalak tramitatzea berriro kontratu berri bat, berez Legez 2008tik beste administrazio bati dagozkion zerbitzu batzuetarako.

Azken batean, legearen betetze maila baloratzekotan, ondorioztatu beharko litzateke ez-betetze larriena ez dela izan justu Udalarena. Hori guztsia, esan bezala, kontuan izanik orain egoera behar bezala erregularizatuta dagoela.

BESTE BATZUK

- *Udal irratiaaren zerbitzu publikoa, zeharka kudeatzen du Udalak, sozietate kooperatibo baten bidez, eta ez du betetzen udal irratia antolatu eta kontrolatzeko 11/1991 Legearen 3. artikulua.*

Aurreko alegazioaren antzeko izpirituarekin, hau da, irregularitasuna onartzen delarik, baina hori azaltzen saiatuz, adierazi behar da udal irratia kudeatzen dela Goiena, S.Coop. empresa kooperatiboarekin sinatutako hitzarmen baten bidez; entitate hori irabazi asmorik gabekoa da eta GOITB tokiko telebistaren zerbitzua ematen du. Tokiko TB proiektu hori, hasiera batean, udal ekimenez sortu zen eta, gaurko egunean, Debagoiena eskualdeko udal guztien aldetik finantzaketa publikoaren laguntza garrantzitsua du. Honen bidez adierazi gura da udal irratia zerbitzua hitzartutako entitateak ezaugarri bereziak dituela eta ohiko entitate pribatuaz bestelakoa dela.

Bestalde, kudeaketa formula hori, bere garaian Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiarekin adostutakoa izateaz gain, gaurko egunean aukera erreala bakarra da (hortik datozen sinergiak, eraginkortasuna hobetzea, kalitatea, eta abar) eskatu daitezkeen kalitate “estandarrez” irratia hori abian jartzeko, izan ere, begien bistako arrazoia tarteko (oraingo egoera ekonomikoan, are argiagoa dena), guztiz baztertuta dago zerbitzua ematea gure langileen bitartez, hau da, langile profesional eta egonkorrez (eta ez aldi baterako langileez, txandakatze etengabe batez). Azken batean, udal balorazio bat dago, dioena, HKEEk kolokan jarritako formula erabili ezean, beste edozein, legezkotasuna zorrotz betetzean oinarritutakoak, bideragarritasuna zalantzan jarriko lukeela.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

- *Diruzaintzako soberakinari doitza, Egoera Balantza eta Norbere Fondoak. 4. hiruhileko ur errolda eta Zerrajerako urbanizazio kuotak*

Alegazioaren arrazoia da doitze hori egin behar dela onartzen bada, ematen du hurrengo urtealdietan Udalak neurriak hartu beharko lituzkeela, HKEEk antzemendako akatsa berriro ez ateratzeko.



Horri buruz, ia ezinezkoa da, zehazki, likidazioaren Diruzaintzako Soberakina kalkulatzeko, epean egin ahal izatea 4. hiruhilekoaren ur kontsumoei dagokien errolda, izan ere, datuak jasotzeko aldia (irakurketari buruzko zalantzak argitu eta egiaztatu, akatsak zuzendu, gorabeherak konpondu, eta abar) urtarrilean bukatzen da eta erroldak eta ordainagiriak prozesatu eta ematen dira aurrekontuaren likidazioa onartzeko azken eguna igaro eta gero. Aldi horretako kontabilizazioa epean betetzeko aukera bakarra izango litzateke nahitaez datuak jasotzeko aldia aurreratzea, eta, sortzapen irizpide horri erantzunez, beste doitze bat egin beharko litzateke, irakurketa aldian sartu gabe dauden 2009ko urteko kontsumoak direla-eta.

Udalak uste du, orokortasunez, sortzapen irizpidea aplikatu behar dela, baina ulertzen du irizpide horren salbuespen batzuk daudela, horien artean kasu hau egon daiteke, aldizkako diru-sarrera bat baita, non-eta urtealdi bateko emaitza ekonomikoaren gaineko efektua ez duen aldatzen larregi irizpide bat edo beste bat aplikatzeak, izan ere, 2009ko laugarren hiruhilekoa ez kontabilizatzea, 612 mila euroko zenbatekoa, konpentsatzen da aurreko urteko 4. hiruhilekoari dagozkion diru-sarrerak kontabilizatzeaz, 603 mila euroko zenbatekoa.

Udalaren interpretazioak, halaber, euskarri “doktrinala” izango luke, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza orokorretatik datozen irizpideen bidez; Diru-sarreretan Kobratu beharreko Eskubideak 2. agirian ezartzen du, kobratu beharreko eskubideak errekonozitzeko, kuantifikatzen dituzten dagozkion likidazio egintzak ematen diren unean bertan kontabilizatu edo erregistratzeko irizpide orokorra.

Azken batean, Aurrekontuaren likidazioa onartzeko orduan, Udalak ez du eman administrazio egintzarik erroldak onartzeko, eta ez dago kobratu beharreko kopuruen zenbatekoa kuantifikatzeko moduan; hortaz, zaila izango du ezer kontabilizatza eta HKEEren agindua betetzea.

Antzoko hausnarketa, diru-sarreraren kontabilizazioa jasaten duten administrazio egintzarik ez, egin behar da Zerrajerako urbanizazio kuoten doitzeari buruz. Zentzu horretan, egia bada ere gastua finantzatu dela ia guztia 2009ko urtealdiaren kontura eta aurreko urteen kontura (2006-7-8), likidazio gisa diren diru-sarrerak hiru unetan kontabilizatu dira, kuotak ordaintzeko udal akordioak hartu ahala, hain zuzen ere, 2006-4-10eko, 2009-4-6ko erabakietan eta, behin betiko likidazioari dagokion zatian, HKEEren doitze proposamenaren xedea, tramitazio formala egin eta gero, Hirigintza Kudeaketako Erregelamenduaren 129. artikuluan xedatutakoaren arabera (eskatzen dituena hasieran onartzea, jendaurrean erakustea eta behin betiko onartzea), 2010/11/29an hartutako akordioaren bidez, hurrenez hurren.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRITZIAK

III.3 LANGILEAK

- *Diruzainaren egitekoak betetzen dituen funtzionarioa behin-behinekoz izendatu ez izana.*

Uste dugu iritzi hori ez datorrela bat benetan gertatzen denarekin, diruzain egiteko hori betetzen duen pertsona Udalatzaren Fondoen gordailuzain lanpostua betetzeko kontratatu eta gaitu baitzuen, 1983ko otsailaren 18an egindako bilkuran Udaleko Batzorde Iraunkorrik hartutako akordioaren arabera, geroago berretsiak Udalatzarrak 1983ko martxoaren 10ean egindako bilkuran.

Honekin batera doa aipatu Udalatzarraren akordioaren ziurtagiria, gaurko egunez indarrean dagoena bai Udalean bai Gipuzkoako Foru Aldundian bertan.

- *Udalaren eta Iturbide Egoitza erakunde autonomoaren Lanpostuen Zerrendak (aurreantzear LPZ), 2009ko urtealdian indarrean daudenak, bete gabe dauden eta Enplegu Eskaintzetan sartu ez dituzten 5 lanpostu eta lanpostu bat agertu dituzte.*

Hainbat arrazoi izan dira, batez ere aurrekontuetako austerritate-espiritua, lanpostu horiek betegabe lagatzeko. Edozelan ere, Udaleko organo eskudunek urtero baloratu beharreko gai bat da.

- *Aldi baterako langileak behar ez bezala sartu izana LPZetan, eta LPZ saihesteko praktika, aldi baterako kontratazioaren eta kontratazio iraunkorraren arteko urrats tresna gisa.*

Konstituzio Auzitegiak aukera izan du deklaratzeko zenbait alditan Herri Administrazioek duten marjina zabala, euren antolaketa egiturak sendotu, aldatu edo osatzeko orduan, bai eta euren zerbitzuan diharduten langileen statusa eratu edo zehazteko. Horrela bakarrik erabili dezake eraginkortasunez eskumen hori, izan ere, Administrazioak berak baloratu behar ditu egon dauden gorabeherak, eduki dauzkan edo edukitzea aurreikusten dituen pertsonal baliabideak eta administrazio egiturak ahalik eta ondoen eta egokien lortzeko, aurrekontuan programaturik dituen edo lortu nahi dituen prestazio helburuekin.

Maniobra marjina hori erabiliz, Arrasateko Udalak, LPZren edukiari dagokionez ordenamendu juridikoak eskatzen dizkion gutxieneko betebehar guztiak betetzen dituelarik, informazio “plus” bat ekarri dio LPZri, onura handiagoa, giza baliabideen kudeaketa tresna moduan. Hala, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 14. artikuluan aipatutako lanpostuen



tipologia -funtzionarioentzako lanpostuak, lan kontratudun langile finkoak eta behin-behinekoak- zenbait arrazoirengatik iraupen luzeko aldi baterako langileentzat gordeta dauden lanpostuekin (programako bitarteko funtzionarioak edo obrako edo zerbitzuetako aldi baterako lan kontratudun langileak) osatzen da. Ez da ahaztu behar, bestalde, ez Administrazioko Langilearen Oinarrizko Estatutuak 74. artikuluan, ez Funtzio Publikoa Berritzeko Neurrien Legeak 15. artikuluan, ez dituztela zehazki mugatzen LPZn aipagarri diren lan erregimeneko lanpostuak, hau da, lan kontratudun langile finkoei gordetako lanpostuak, aipatzen baititu entitate bakoitzaren lanpostu guztiak.

Azkenik, beste bi aspektu ere aipatu behar dira:

- Praktika hori ez da nahitaez “aldi baterako kontratazioaren eta kontratazio iraunkorraren arteko urrats tresna bat”, Udalbatzarra, era formalean eta berariaz, erabakitzen baitu aldi baterako langileentzat hasieran gordetako lanpostu jakin bat noiz izan behar duen langile finko edo iraunkor batentzat edo, hala badagokio, noiz amortizatu behar den.
- Aldi baterako izaera duten lanpostu jakin batzuk berariaz eta formaz sartu izanak LPZn erantzuten dio ohartarazitako “akatsa”ren bukaeran aipatzen den terminoetan egindako azterketari, hau da, “lanpostu guztiei buruzko azterketa, haien ezaugarriengatik izaera mugagabea baina ez iraunkorra duten lanpostuak definitzeko (LPZn aldi baterako langileak) eta beharrizan iraunkorrik dituzten lanpostuak (LPZn funtzionarioak eta lan kontratudun langile finkoak)”.

III.4 KONTRATAZIOA

Txotenean adierazitako iritzi guztiei buruz ez gatoz bat horiekin, edo ulertzen dugu, behintzat, hauek zalantzagarriak direla:

- *Eskaintzarik merkeenak kaltetzen dituzten prezioaren balorazio irizpideak.*

Txostenak dio Udalak adjudikatutako 7 kontratutan, 2 kontratu Iturbide Egoitza erakunde autonomoak eta 2 kontratu AUKEA erakunde autonomoak, formula aritmetikoak sartu direla prezioaren irizpiderako, eta objektiboak eta publikoak diren arren, eskaintzarik merkeenak kaltetzen dituztela, beheranzko x portzentaje batetik aurrera puntuazio berbera ematen baitute.

Ulertzen dugu kontratazio espediente batzuetan erabilitako formula aritmetikoak ez dituela urratzen kontratazio araudiaren printzipioak, ez eta kaltetzen ere eskaintzarik merkeenak, gehieneko puntuazioa lortu behar dute-eta beti. Bai sortzen du kasu batzuetan gehieneko puntuazioa ez zaiola ematen bakarrik eskaintzarik merkeenari, beste eskaintzei ere bai, nahiz eta eskaintzarik merkeenaren gainetik izan, aurkeztutako eskaintzen batez bestekoari buruz portzentaje jakin baten azpitik dauden beste eskaintza batzuei. Uste dugu



ez dela aurpegitatzeko formula hori erabili izana, publikoa, objektiboa baita eta agirietan dago sartuta, eta, gainera, Kontratazioko Kontsulta Batzordeek bermaturik dago, bai eta aldizkari espezializatuen iritziek ere (El Consultor), hori guztia ahaztu barik, gainera, eskaintzarik onuragarriena erabakitzenten dela adjudikazio irizpide guztiak aplikatuz. Azken batean, kontua da mekanismo objektibo bat sartzea, zuhurtziagabekeriazko beheranzko eskaintzarik ez sustatzeko, ezelako mugarik gabe, empresa lizitatzaleen eskaintzetan, kontuan izanik, bestalde, ohiz kanpoko beheranzko edo zuhurtziagabekeriazko eskaintzak erabakitzeko mekanismoa ez dela beti erraza eta, horietako kasu batzuetan, bihurtzen direla kudeatzeko kontratu oso konplexuak eta hura exekutatzean gorabehera handiak izan ditzaketeenak.

- *Irizpide objektiboak eta subjektiboak baloratu izana biak batera.*

HKEEk hau ere esaten du, 2 kontratutan esleipen irizpideak batera baloratu direla, hau da, formulak aplikatuz lortzen direnak eta hauek aplikatu gabeko irizpide subjektiboak desberdindu gabe, Zerbitzu Publikoen Kontratuei buruzko Legearen 134. artikuluak dioenaren aurka.

ZPKLren 134.2 artikuluak dio hitzez hitz: “Eskaintzak formulak aplikatuta kuantifikatzekoak diren irizpideen arabera ebaluatzen, lehenbizi, bestelako irizpideak ebaluatuko dira, eta ebaluazio horren berri idatziz jasoko da. **“Lege hau garatzeko arauak zehaztuko dute zein kasutan eta zein baldintzatan egin behar den publiko aurretiazko ebaluazio hori, bai eta, balorazio hori bereiz egin ahal izateko, proposamenak nola aurkeztu behar diren ere.”**”

Hala ere, Legearen garapena onartu arte, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren bidez, erregulatzen duena prozedura eta nola aplikatu behar den, ZPKLren 134.2 artikula betearazteko, ez ditu ezartzen, behar bezalako prozedura bermeekin (ez da bakarrik balorazio bereiziko arazo bat, aurkeztu beharreko dokumentazioa-gutunazalak antolatu eta erregulatu behar dira ere bai), irizpide objektiboen eta subjektiboen balorazio bereizia gauzatzeko mekanismoak.

Adierazi behar dugu HKEEren txostenean aipatzen dituzten bi expedienteak izapidetu ditugula Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legea, urriaren 30eko, onartu eta SPKL zati batean garatzen duen 817/2009 Errege Dekretua indarrean sartu bitarteko aldian; hortaz, epe horretan falta ziren Legeak ezarritako helburua gauzatzeko jarraibide zehatzak.

- *Epea murritzeko akordiorik ez izatea. Ferixaleku-Altamira eta Makatzenako igogailuen kontratuan, kontratazio organoak ez du onartu exekuzio epea murritztea.*



Uste dugu exekuzio epeak, obretan nahiz horniduretan, ez direla berez helburuak, gainditu behar ez diren erreferentziak baizik, baina beti izango litzateke onargarria ondasunak eta obrak entregatzea gehienez ezarritako epea bukatu baino lehen, betiere horregatik ahultzen ez bada produktuaren kalitatea edo kontratatutako zerbitzua. Beste kontu bat da epeak laburtzeak eragitea finantzaketari edo aurrekontuaren exekuzio erritmoari, baina ez da hori Arrasaten gertatu. Labur esanda, obra proiektu bat da, non-eta ez dagoen zertan onartu behar epeak murriztea, interes publikoko azpiegitura bat sortzea jasotzen duena, eta denboran aurreratzekotan, onura handiagoa dakarkio bai Udalari bai herritarri.

Aztertzen ari garen kasu honetan, enpresa kontratistak proposatu zuen, kontratua aldatzeaz gain, obren exekuzio epea murriztea, Udalak berariaz onartu ez zuen epe berria, eta, hortaz, hasierako kontratuan ezarritakoa mantendu genuen. Geroago, gertatu bezala, lanak gehieneko epe hori baino lehen bukatzen badira, ez da beharrezkoa hora onartzea kontratazio organoak, eta bukatzeko epea jasota geratzen da onarpen formaleko egintzan.

2. INO GALPARSORO MARCAIDEK, IKUSKATU DEN 2009KO EKITALDIKO EPEALDIAN ARRASATEKO UDALEKO ALKATEA IZAN DENAK, EGITEN DITUEN ALEGAZIOAK

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako 2009ko ekitaldiari buruzko behin-behineko Fiskalizazio lanaren ondorioak azterturik, eta Arrasateko Udalak (oraingo alkatearen bitartez) horri erantzuteko prestaturiko alegazio idatziaren berri jakin eta gero, adierazten dut nire adostasuna aipatu udal idatziarekin eta, horren ondorioz, idatzian bertan esandakoari atxikitzen natzaio.





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Programa de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Ayuntamiento de Arrasate/Mondragón y de sus Organismos Autónomos Locales para el ejercicio 2009.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legalidad: Revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, ingresos de derecho público, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, y concesión de subvenciones.
- Contabilidad: Conformidad de la Cuenta General con los principios contables que le son aplicables. La Cuenta General contiene el Balance de Situación, la Cuenta de Pérdidas y Ganancias, memoria y liquidación de los presupuestos del Ayuntamiento y de sus Organismos Autónomos.

Respecto a las cuentas del Ayuntamiento y sus Organismos Autónomos, nuestro trabajo ha consistido en revisar el informe de auditoría llevado a cabo por una firma externa, verificando su soporte en los papeles de trabajo de los auditores y realizando aquellas pruebas complementarias u otros procedimientos de auditoría que hemos considerado necesarios.

- Análisis financiero de la situación económica del Ayuntamiento.
- Otros aspectos: El alcance del trabajo no ha incluido un análisis específico sobre la eficacia y eficiencia del gasto ni sobre los procedimientos de gestión del Ayuntamiento y sus Organismos Autónomos. No obstante, los aspectos parciales que han surgido en la fiscalización están comentados en el epígrafe III de este Informe.

El municipio de Arrasate/Mondragón, con una población de 22.064 habitantes según padrón municipal a 1 de enero de 2009, integra en su estructura, además del Ayuntamiento, a los Organismos Autónomos Iturbide Egoitza y Deportes Aukea.

Con fecha 6 de noviembre de 2008 el Pleno del Ayuntamiento acordó la extinción de la sociedad municipal Arrasate Garatu, S.A., constituida en 1999 para la gestión del suelo municipal, y ordenó el reintegro de su capital social al patrimonio del Ayuntamiento. Con fecha 15 de enero de 2009 se eleva a público el citado acuerdo y el 20 de febrero de 2009 se inscribe en el Registro Mercantil.



II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

PERSONAL

1. En aplicación de lo previsto en la Ley 40/2007, de 4 de diciembre, de medidas en materia de Seguridad Social, a la fecha de este Informe 4 trabajadores del Ayuntamiento y 1 del Organismo Autónomo de Deportes Aukea se encuentran en situación de jubilación parcial, a la que accedieron, en tres de los casos como consecuencia de la laboralización de sus puestos como funcionarios. El Ayuntamiento y el Organismo Autónomo les concedió una licencia retribuida extraordinaria hasta la expiración de su contrato, eximiéndoles del cumplimiento de la prestación del servicio efectivo de su jornada. La licencia concedida carece de la cobertura legal necesaria y no tiene encaje en el régimen jurídico aplicable al personal al servicio de las Administraciones Públicas.

CONTRATACIÓN

2. El Ayuntamiento ha ejecutado gasto, en el ejercicio 2009, por importe de 135 miles de euros, por la prestación de servicios de profesionales independientes dentro del programa de intervención familiar, prescindiendo de los procedimientos y formas de adjudicación que rigen la contratación administrativa (Ver A.8).
3. El contrato de obras de reforma de la residencia de Iturbide, adjudicado por el Ayuntamiento por importe de 2.756 miles de euros, ha sido objeto de 11 modificaciones, que aunque responden a necesidades nuevas e imprevistas y han sido debidamente tramitadas conforme a la normativa vigente, han incrementado un 33% el precio inicial del contrato. La importancia de la cuantía de dichas modificaciones trasgrede los principios licitatorios de la normativa de contratación, al desnaturalizar tanto el objeto contractual como el volumen económico del contrato (Ver A.15).
4. En el contrato mixto de 2 ascensores en Ferixalekua-Altamira y 1 ascensor en Makatzena, adjudicado por el Ayuntamiento por importe de 2.079 miles de euros (elaboración del proyecto y dirección de obras 76 miles de euros, obra civil 1.104 miles de euros, suministro e instalación 357 miles de euros y servicio de mantenimiento durante 10 años 542 miles de euros) la justificación de la contratación conjunta de elaboración de proyectos y ejecución de obras no se ajusta a los supuestos de excepcionalidad contemplados en el artículo 125 del Real Decreto Legislativo 2/2000, de 16 de junio, Texto Refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas (en adelante TRLCAP) (Ver A.15).

Además, con fecha 11 de diciembre de 2008, el Pleno municipal aprobó la modificación del proyecto de los 2 ascensores en Ferixalekua-Altamira incrementándose el coste de ejecución de la obra civil por importe de 815 miles de euros (incremento del 96% respecto al inicialmente adjudicado). Dicho proyecto presentado por el adjudicatario difiere de forma sustancial técnica y económicamente del anteproyecto presentado en la fase licitatoria y que sirvió de base de adjudicación, siendo causa de rescisión del



contrato conforme a la cláusula 8^a del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares e incumpliéndose el artículo 111 del TRLCAP.

5. El Pleno municipal adjudicó en 2003 por precios unitarios, el servicio parcial de cocina del Organismo Autónomo Iturbide Egoitza por una duración total de 5 años incluidas prórrogas, no habiéndose tramitado la convocatoria de un nuevo procedimiento en el ejercicio fiscalizado, por lo cual la prestación del servicio, con un gasto ejecutado en el ejercicio 2009 por importe de 159 miles de euros, se ha realizado incumpliendo los principios regulados en la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público (en adelante LCSP) (ver A.15).

OTROS

